

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Apirilak 18  
Ostirala  
Alea: 748  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## ASTE SANTUKO OPORRAK

### Penintsulatik kanpora herniar gutxiago atera da aurten eta Landak edo Benidorm aldera joan dira asko

■ Bidai agentzien arabera urrutirako bidaiai jeitsi egin dira eta jendea penintsulan gelditu da gehien ■ Geroz eta gehiago Pazko Astea ere jai hartzen du jendeak oporrik luzatzeko ■ Hernanira, Katalanak datozen gehien.

GERRAK eta horren bueltan sortzen den bildurrak denean du eragina eta baita jendearen opor bidaietan ere, agentzien arabera. Aurten, nabarmen behera egin dute atzerrirako bidaiek, abioia hartzeko beldurrez, eta jendea alderaxeago gelditu da: Landak, Benidorm, Salou eta abar. Kanariar uharteak eta Baleareak dira eszepzioa eta aurten ere jende askok aukeratu ditu oporretarako. Kontuak kontu jendea ez da etxean gelditu zalea eta batera edo bestera gehienak ateratzen dira bost egun hauetan.

Joera honek eraginda oso oferta onak ere atera dira aurten nazioarteko bidaietan, bidai agentziek diotenez: Egiptora, Pragara, Caribera... baina, jendea beste urteetan baina gutxiago animatu da bidaia luzeetara eta gehienak kotxez atera dira, eta Salou aldera-eta autobusean. Betiko bidaiez gain bada Kanta-briara edo Galiziara animatu denik ere eta barrualdera edo Pirineo aldera ere inguratu da Hernaniko jendea, baina, gutxiago.

#### Eguzki bila

Aste Santuko oporrik Udako oporen sarrera izaten dira eta jendeak eguzki bila atera nahi izaten du gehienak. Itsas ertzera eta hondartzara joan dira herniar gehienak, nahiz eta mendi aldera edo kultur bidaietara ere jendea animatu. Alojamenduari dagokionez hotelera nahi izaten du gehienak, dena egina izan dezala alegia, eta gaztexeagoak dira apartamenduetara-eta joaten direnak.



Herriko bidai agentziak lanez gainezka izaten dira Aste Santuan.

Gure inguruari dagokionez, nekazal turismoek egin dute gora azken urteetan nabarmen, eta berehalaxe betetzen da dena Aste Santu garaian.

#### Pazko Astea jai

Aste Santuari motzetxo iritzita edo, geroz eta jende gehiagok Pazko Astea ere jai hartzen du, herriko bidaia agentziek Kronikari esan diotenez. Horrek bere aldea badu bidaiatzeko orduan: Pazko Astean prezioek behera egiten dute nabarmen (kasu askotan prezioak erdira jeisten dira) eta jende pilaketak ere ez dira hain-bestekoak. Bost eguneko oporrik beharrean, hamar hamabost eguneko oporrik geroz eta normalagoak dira, beraz, gure artean.

#### Honuntza, Katalanak

Hernanitik kanpora jende asko ateratzen da, baina, asko dira Aste Santuan Hernanira etortzen direnak ere. Katalanak dira, dudarik gabe, Euskal Herrira gehienetan etortzen direnak eta Aste Santuan beteta daude Hernaniko alojamenduak. Barcelona, Girona, Lleida edo Madrid aldeko jendea dabil gehien Hernanin oporetan, eta horretan eragin haundia du Donostia ondoan izateak.

Gehienak kostarako plana egiten dute: lehenengo Donostia ikusten dute, gero Zarautz, Getari, Hondarribi, Hendaia... eta denborarik gelditzen bazale egiten dute barrualdera, Loiolako Basiliaka dela, Segurako prozesioak direla eta abar. Hemengo

gastronomia, pintxoak, potea eta kaleko giroa gustatzen zaio asko kanpotik datorren jendeari.

#### Gehienak bueltatu

Hernaniko alojamenduetatik Kronikari esan diotenez, behin etortzen direnak bueltatu egiten dira normalean. Hernani Donostiatik gertu dago eta bastante merkeagoa eta lasaiagoa da; probatu duenak bueltatu egin nahi izaten du.

Aste Santua, abuztua eta sagardotegi bolada dira Hernaniko alojamenduetara kanpoko jende gehienetan etortzen den garaiak. Bolada honetan aukera haundiagoa balego ere, bete egingo lirateke denak, baina, urte guztia ez omen da gero berdina izaten. □



Kristau fededunak gurutze ondoan otoitzean, Santa Barbaran.

## OSTIRAL SANTUA

### Prozesioa eta Pasio Ospakizuna gaur

OSTIRAL Santuko ospakizun erligiosoek egun osoa beteko dute gaur Hernanin. Goizeko 08:30etan Santa Barbarako Gurutzbidea egingo dute fededunek, Jesusukristok gurutzera bidean egindako 14 geldialdieta barrena otoitz eginez. Gurutzbidea jende asko biltzen duen ekitaldia da Hernanin.

Gurutzbidearen ondoren, meza izango da Juan Bataiatzailea eta Jose Langilearen parroketan. Goizeko 10:00etan da Jose Langilean, eta 11:30etan Juan Bataiatzailean.

Arratsaldean, Pasio Ospakizuneko mezak izango dira herriko hiru parroketan: 17:00etan, Ereñotzko San Antonio parrokiaren, 18:30etan Juan Bataiatzailean, eta 19:00etan Floridak Jose Langilea parrokiaren.

**Bihar Pazko bijilia eta aitortzak**  
Bihar, Larunbat Santu eguna, aitortzak izango dira aurrena Juan Bataiatzailean 18:00etatik 19:00etara, eta mezak gero hiru parroketan: 19:00etan San Antonion, eta 20:30etan Jose Langilean eta Juan Bataiatzailean.

Etzi, berriz, Pazko Igandea da eta Meza Nagusiak izango dira goizean hiru parroketan Jesusen piztuera ospatzeko. □

### Bihar, larunbata, ez da Kronikarik izango

**Antziola-Motor**  
Salmenta eta tailer zerbitzua

**ford Tourneo Connect**

**Gogortasunaren forma berria**

Ford logo



Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

**AMARIA  
GRANDEZA**

**ARRATIA  
ITSASBILIA  
FRESKO ETA  
IZOTZUAK**

Kardaberaz 34  
Tel.: 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 Hernani

**CALARRETA JAI ALAI**



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**IGANDEAN 16:00ETATIK AURRERA**

**ERREMONTZE JAI ALDIA:**

- partidua: Odriozola-Agirrezabal / Matxin IV-Jon
- partidua: Agirresarobe-Alekunberri/ Bereziartua-Aizpuru
- partidua: Sarasua-Txikuri / Bitoria-Mendizabal
- partidua: Matxin III-Gaztelu/Larrea-Lander

Argitaratzailea: Dobera Euska Elkarte. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. ☎ 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Sauna berrirako sarrera eskubian eta dutxa berrituak ezkerrean.

## Sauna maiatzaren hasierarako berritura egotea espero dute kiroldegian

■ Sauna, dutxak, deskantsurako gela eta aldagelak egongo dira ■ Lanak nahiko aurreratuak daude eta laister saunak ibiltzeko moduan izatea espero dute kiroldegian.

KIROLDEGIAN sauna berri-zen ari dira, eta maiatzaren hasierarako bukatzea espero dute kiroldegiko arduradunek. Iazko irailaren 22an su hartu zuen kirolegia eta sauna, frontoirako pasilua eta instalazio elektriko nagusia hon-datu egin ziren. Horren ondorioz, goitik behera aldatu behar izan dituzte gizonezkoen eta emakumezkoen saunak eta baita, dutxak, relajazio gelak eta aldagelak ere. Zorua, pare-tak eta sapai puskarik gehiena egin dute dagoeneko eta insta-

lazioak bukatzea eta azken ikuituak ematea falta da.

### Berdin ordenatuta

Saunak, aldagelak, komunak eta relajazio gelak lehen beza-la ordenatuta daude orain ere. Hori ez da aldatu. Gizonezkoen saunak daude eskubi-aldean eta emakumezkoenak ezkerrean. Saunak lehen baino modernoagoak dira, kris-talezkate eta guzti, eta rela-jazio gelako oheak egurrezkoak dira orain, lehengo la-rrezkoak baino garbiagoak.

Alde bakoitzean hiru dutxa eta aldagelak ere egongo dira, lehen bezalaxe.

### Ofizinak ere obratan

Kirolegian ez dira saunakoak egiten ari diren obra bakarrak. Taberna ondoko bulegoetan obrak hastekoak dituzte eta bulego probisionalak jartzen ari dira ondoan. Orain, jendearentzako bulegoetara sarrera tabernaz beste aldetik dago, eta gerora igerilekuko kristaleraren paralelo jartzeko asmoa dute. □



Dantzariak Tilosetan, iazko Dantzari Festan.

## Dantzari Festa antolatzen laguntzeko bilera asteazkenean

MAIATZAREN 3tik 10era Dantzari Festa egingo da Hernanin eta antolatzaileek herriarrei laguntza eskatu diete. Laguntza maiatzaren 4an (igandean) beharko da batez ere, egun horretan etorriko baitira Hernanira Euskal Herri osoko dantzariak. Egun horretan, antolatzaileek espero dute 300 lagun inguru etortzea Hernanira, eta laguntza eskatu dute aulkia eta mahaiak jartze-ko, jana banatzeko eta abar.

Nola lagundu hitz egiteko, Dantzari Festako antolatzaileek bilera deitu dute datorren asteazkenerako (apirilak 23) Biterin, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzaileek dantzari festarekin interesatuta dauden guztiak goni-bidatu dituzte. □

## ■ MAHAI TENISA



Aitor Valverde Murtzian da Spainiako txapelketa jokatzen.

## Lau Hernaniar Espainiako txapelketa jokatzen


■ Valverde, Mitxelena, Diez eta Irastorza Murtzian dira Aste Santuan.

EGUNOTAN, Espainiako Mahai Tenis Txapelketa jokatzen ari da Murtzian eta lau hernaniar han ari dira jokatzen, jubeniletan. Aitor Mitxelena, Aitor Valverde, Erik Diez eta Zuhaitz Irastortza dira txapelketa jokatuko dute hernaniarrak.

### Open Juniorra

Aurreko asteburuan IVgarren Open Juniorra jokatu zen eta Aitor Odriozolak lortu zuen garaipen partziala, eta Zuhaitz Irastortza hirugarren postua lortu zuen. Bi jokalarien oso denboraldi bikaina egin dute.

## ■ WATERPOLOA



Hernaniarrak irabazi egin zuten ligako azken partidua.

## Hernani Gipuzkoako txapeldun

■ Hernani-EHU 6-7 irabazi zion Tximistarri Donostian, Ligako azkeneko partidua.

HERNANI EHU Gipuzkoako Ligako txapeldun gelditu da, Tximistarri talde donostiarri 6-7 irabazita. Hernanik oso partidu zaila jokatu zuen donostiarren kontra. Tximistarri oso maila onean dago eta ondo sufrituta irabazi zuten hernaniarrak, emaitzak era-kusten duen bezalaxe.

Partzialak 0-0, 1-1, 2-3 eta 3-3 Aurreneko zatia husna egin zuten, porteroek lan ona egin

zutelako, baina, jokalarien gehiegiz asmatu ez zutelako ere bai. Bigarren zatian, bana egin zuten donostiar eta hernaniarrak. Hirugarrenean, hernaniarrak aurretek jarri ziren eta 2-3. Eta azkenekoa, 3-3 bukatu zen. Azkanean, 6-7 hernaniarrak aurretek.

Hernaniarrak golak sartu dituztenak: Jose Mari Ma-roñok 3 gol, Ion Casasek 2, Mikel Etxeberriak 1 eta Juan Lumbriterasek gol 1. □

## ZERBITZUAK

### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### ■ FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberry Urbia 7  
☎ 943 552941
- Gauzez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32  
☎ 943 361556

## IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (seguritasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76

Pertsona bat behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. 609 76 10 85 (20:00etatik aurrera deitu).